



Usurbilgo Udala



2015EKO AZAROAREN 24EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Garcia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Arratsaldeko 18:05etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2015eko azaroaren 24ean, arratsaldeko 18:05etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA:

*** 2015/10/27KO OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek, 2015eko urriaren 27ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2015EKO URRIAREN 19TIK AZAROAREN 11RA



Usurbilgo Udala



(2015/0939 – 2015/1058)

Alkatetzak 2015eko urriaren 19tik azaroaren 11ra bitartean (2015/0939– 2015/1058) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

Bestalde, Josune Urkola zinegotziak urriaren 27ko bilkuran dekretuen hurrenkerari buruz egindako ohartarazpenari buruz jakinarazi da legegintzaldi honetan, orain arte, dekretu hauen berri eman dela:

Plenoa_eguna	Dekretua_data	Dekretua_zenbakia
2015/07/28	2015eko ekainaren 17tik uztailaren 17ra	2015/0545-2015/0663
2015/09/29	2015eko uztailaren 18tik irailaren 18ra	2015/0234* -2015/0865
2015/10/27	2015eko irailaren 21etik urriaren 16ra	2015/0866-2015/0938

* Idazterakoan akatsa: 2015/0234 beharrean, 2015/0664 izan beharko luke.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2015/12/20AN IZANGO DIREN HAUTESKUNDE OROKORRETAKO HAUTESKUNDE-MAHAIIETAKO KIDEEN ZOZKETA ETA IZENDAPENA.

CONOCE aplikazio informatikoa erabiliz, 2015eko abenduaren 20an izango diren Hauteskunde Orokorretako mahaikideak hautatzeko zozketa egin da.

4.- USURBILGO UDALA ELHUYAR FUNDAZIOAREN PATRONO IZATEA ONARTZEA ETA ORDEZKARIA IZENDATZEA.

Puntu hau diktaminatu gabe dagoenez, hasteko, batzarkideek gai-zerrendan sartzea berretsi dute aho batez.

Behin gai-zerrendan sartuta, alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

2014ko abenduaren 17tik datorren gaia dela zehaztu du, bere garaian Elhuyar Fundazioak Usurbilgo Udala patrono-kide izatea erabaki baitzuen. Arautegiaren arabera, gonbidapen horri Usurbilgo Udalak baiezkua eman behar dio gauzatu ahal izateko.

Jarraitu du esanez aurreko legealdian Mertxe Aizpurua alkatea “*de facto*” patrono-kide izan zela eta orain eskutitza heldu denean izen aldaketa bat soilik izango zela ulertu zutela; baina azken momentuan ohartu direla esan du udala patrono-kide izatea eta



Usurbilgo Udala



ordezkari bat izendatzea plenoak onartu beharrekoa dela. Hori horrela, azken momentuko erabakia izan dela dio gaia plenora ekartzea eta gainera diktaminatu gabe.

Hemen egiten den proposamena da eskaera horri baiezkua ematea, izan ere horretarako arrazoi nahikoak badaudela iruditzen baitzaie. Batetik, Elhuyar Fundazioak euskal kulturarekin eta zientzia dibulgazioarekin sekulako lana egiten duelako, azken honetan Euskal Herriko erreferente nagusienetakoa izanik. Bestetik, Usurbilen kokatua egoteak ere pisu berezia eman diola esan du. Gainera Udalak hitzarmen bat baduela sinatuta Fundazioarekin eta halako konpromiso bat ere baduela azaldu du.

Halaber, proposatzen dena da Udalaren ordezkaria alkatea bera izatea.

Gaineratu du Fundazioaren arautegian aipatzen dela patrono-kide izatea doakoa dela, hau da, patronatoan parte hartzeagatik ez dela dirurik kobratzen.

Hasieran komentatu duen bezala berriz ere aipatu du gai hau plenora ekarri izana tramitezko kontu bat dela.

Gainontzeko batzarkideei hitza eman die.

Josune Urkolak hitza hartu du eta adierazi du gai honetaz ez zekitela ezer eta sorpresaz hartu dutela. Galdetu du zergatik pleno honetan sartzeko horrelako presa.

Alkateak erantzun dio Elhuyarreko zuzendariak jakinarazi ziola abenduan Patronatoko bilera bat egiteko asmoa zutela eta hori izan dela premiatusun honen arrazoia. Gaur ez balu gai-zerrendan sartu, abenduan ezohiko bilkura bat deitu beharko zukeela adierazi du.

Josune Urkolak adierazi du beraiek abstenitu egingo direla baina ez kontra daudelako, beraientzako ere garrantzia handia duela Elhuyar Fundazioak esan du, baizik eta ez dutelako denborarik izan aztertzeke.

Alkateak adierazi dio ulertzen duela eta azaldu du Udal Arautegia aztertzen ari direla eta jakitun dela beste udal batzuetan horrelako gaiak plenora ekarri aurretik bozeramale batzordetik edo antzeko batetik pasatzen direla.

Jarraian, alkatearen proposamena aztertu ondoren, batzarkideek gehiengoz honako erabakia hartu dute:

“Esp.zk.: ID.02/2015-0517

Ikusirik



Usurbilgo Udala



Elhuyar Fundazioaren Patronatuak 2014ko abenduaren 17ko bileran, besteak beste, Usurbilgo Udala Elhuyar Fundazioaren patrono izendatzea erabaki zuela erakunde publikoetan aldetik.

Elhuyar Fundazioaren estatutuen 11. artikulua Patronatuaren osaerari buruz hauxe dio:

“11. artikulua.- Patronatuaren osaerari

Patronatua kide anitzeko organoa izango da, gutxienez bost lagunez eta gehienez hogeita batez osatua.

Hasieran Patronatua erakunde sortzaileak izendatutako pertsonez osatuta egongo da.

Sortze-ekitaldiaren ondoren, Patronatuko kide-kopurua zehazte -estatutu-mugen barruan- eta kide izango diren pertsonak izendatzea, Patronatuari berari dagokio, baita hutsuneak betetzeko eta kideak berritzeko izendapenak egitea ere. Patronatuan, gehienez, honako kideak egongo dira:

- Hiru kide Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko edo Pirinio Atlantikoko Departamenduko Erakunde Publikoetatik.
- Hiru kide Fundazioaren pertsona fisiko laguntzaileen artetik izendatuak.
- Hiru kide Fundazioaren laguntzaile diren enpresa eta zuzenbide pribatuko erakundeen artetik izendatuak.
- Zortzi kide hasierako laguntzaileen artetik izendatuak.

Gainera, euskararen normalizazioaren, ikerketa zientifikoaren edo garapen teknologikoaren alorretan ospea duten edota merezimendua aitortzen zaien lau pertsona gehienez izan daitezke Patronatuko kide. Kide horiek Patronatuak berak hautatuko ditu.”

Orain, Usurbilgo Udalari dagokio Elhuyar Fundazioko patrono izatea espresuki onartzea eta ordezkaria izendatzea.

Kontutan harturik

- 50/2002 Legea, abenduaren 26koa, Fundazioena (lege horretako Lehenengo Azken Xedepenean aipatutako oinarritzko eta prozesuzko izaera duten artikulua, zuzenean aplikatu behar direnak). (BOE, 310, zk., 2002ko abenduaren 27koa).
- 12/1994 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioena (EHAA 35. zk., 1994ko uztailaren 15koa)
- Ekainaren 19ko 101/2007, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena, (EHAA 188. zk, 2007ko irailaren 28koa, bere 40.4 artikuluan ezartzen duenez, nahitaezkoa da gobernu organoko kideen izendapenak inskribatzeko, aurrez izendapen hori onartu dela espres adieraztea.



Usurbilgo Udala



- Elhuyar Fundazioaren estatutuak.

- Toki-Jaurlarria arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; 22.artikuluaren arabera, plenoari dagokion erabakien artean dago aztergai duguna.

Udalbatzarrak gehiengoz honako erabakia hartu du:

E R A B A K I A

LEHENA: Usurbilgo Udala Elhuyar Fundazioko patrono izatea onartzea.

BIGARRENA: Usurbilgo Udalaren ordezkari patronatuan Xabier Arregi Iparragirre izendatzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Elhuyar Fundazioari ematea.”

Bozketa egin denean honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

5.- EUSKARAZ KOOPERATIBA (AEK) ETA USURBILGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.

Alkateak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu.

Puntu hau Kultura, euskara eta gazteria batzordetik pasa zela esan du. Hitzarmen hau bi helburu nagusirekin egiten dela aipatu du, batetik, diru-laguntzei begirako proposamen bat jasotzeko eta, bestetik, prekarioz lagatako lokalaren erabilpena arautzeko.

Nabarmendu du hitzarmenaren iraupena bost urtekoa dela.

Beraien iritziz helduen alfabetatzea eta euskalduntzea herri honetako eta udal honetako helburu estrategiko bat dela adierazi du. Beste herri batzuetan ez bezala, Usurbilen erakunde bakarra AEK dela esan du zerbitzu hori edo lan hori egiten duena.

Diru-laguntzei dagokienez, ohiko erregimena jarraitzen duela aipatu du.



Usurbilgo Udala



Lokalaren lagapenari dagokionez ere ez dagoela aparteko zehaztasunik esan du.

Gaineratu du AEK-k Udalaren diru-laguntzaz gain HABEren laguntza ere jasotzen duela eta Udalak jartzen duen diru kantitate hori, beti ere, HABEk ematen dionaren gain jartzen dena izango dela azpimarratu du, beraz, Udalak ematen duenarekin osatu egiten da.

Batzarkideek, Kultura, euskara eta gazteria Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio erabakiak:

“Esp.zk.: KE.02/2015-0253

Ikusirik

Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzak Arautzeko ordenantzaren 2. atalean hitzartutako dirulaguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak dirulaguntzak emateko duen bideetako bat bezala.

Euskaraz Kooperatibak (AEK) urteetan herrian euskalduntze alfabetatzean lan handia egin du, eta beharrezkoa ikusten da Udala eta Euskaraz kooperatibaren (AEK) arteko harremana hitzarmen batean jasotzea.

Zentzu honetan, 2005eko irailaren 8an Usurbilgo Udalak Euskaraz Kooperatibarekin (AEK) hitzarmena sinatu zuen Usurbilen Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzea eskaintza sustatzeko. Hitzarmenaren iraupena 10 urtekoa zen.

Orain, Udalak Euskaraz Kooperatibarekin (AEK) hitzarmena berritzeko beharra ikusi du.

Hitzarmen honen helburua bikoitza da:

- Usurbilgo Udalaren aldetik: Euskaraz Kooperatiba Elkartarekin (AEK) dirulaguntza-erregimena, bestelako zerbitzuak (Mintzalaguna, autoikaskuntza eta euskara azterketak egitea) eta prekarioz lagatuko dion lokalaren erabilpena arautzea.

- Euskaraz Kooperatibaren (AEK) aldetik: Usurbilgo udalerrian, eta, bereziki, Usurbilgo biztanleriaren artean, Helduen Euskalduntze eta Alfabetatze-lanen eskaintza sustatzea.

Kontuan harturik

- 2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.
- Administrazio Publikoetako Kontratuen Erregelamendua (uztailaren 5eko 1098/2001 Dekretua)
- Apirilaren 2ko Toki Korporazietako Oinarri arautzailearen 7/1985 zenbakidun Legea eta apirilaren 18ko erregimen lokaleko arauak biltzen dituen 781/1986



Usurbilgo Udala



zenbakidun Testu Bateratua, beti ere Kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez baldin badoa.

- Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
- Herri Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea.
- Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza. (GAO, 2008-07-01)
- Honetaz gain, zuzenbide administratiboko arauak eta bere kasuan zuzenbide pribatu arauak aplikatuko dira.

2015eko azaroaren 16an egindako Kultura. Euskara eta Gazteria Batzordean ebazpen-proposamen honen bozketak emaitza hau izan zuen: ebazpen proposamena aho batez onartu zen Alaitz Aizpurua, Xuban Zubiria, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin,

Honenbestez, Kultura, Euskara eta Gazteria Batzordeak aho batez Udalbatzarrari egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo Udalak eta Euskaraz Kooperatibak (AEK) izenpetuko duten hitzarmena onartzea, diktamen honi eransten zaiolarik.

Bigarrena: Hitzarmenaren iraupena bost urtekoa izango da.

Hirugarrena: Usurbilgo Udalak urtero, aurrekontu partidan hitzarmen honi aurre egiteko adinako dirua jartzeko konpromisoa hartzen du.

Laugarrena: Hitzarmenaren berri interesatuari, udal-ondare arduradunari eta kontuhartzaileari emango zaio.”

Bozketak egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

6.- PSE-EEK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.



Usurbilgo Udala



Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek gai-zerrendan sartzea berretsi dute aho batez.

Fermin Orue-Echevarriak hitza hartu du eta adierazi du azaroaren 25ean izango den Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta, alderdiak udaletako bozeramaleei mozio hau udaletan aurkezteko eskatu diela.

Jarraian, adierazpenaren azken bi puntuak irakurri ditu.

Batzarkideek, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, honako adierazpen instituzionala onartu dute aho batez:

“AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 25a dela eta, data horixe izendatu baitu Nazio Batzuen Erakundeak “Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna”, gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenekiko, zeinahi ere den (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai halaber sexismo-modu guztiekiko, barne daudelarik finenak eta normalizatuenak, hala nola sexuen arabeko rol estereotipatuak ezartzea edo bizitzaren esparru askotan emakumeak ikusgai ez egotea, besteak beste. Berretsi nahi dugu, era berean, arazo estruktural baten aurrean gaudela eta, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunik eza oinarri duenez, ezinbestekoa dela berdintasun-politikak baliatzea, adituek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezalaxe.

Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egitura bertan oinarritzen da; izan ere, oraindik ere aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumezkoen eta gizonezkoen, eta oraindik ere jaiotza-sexuaren arabera pertsonen askatasuna mugatzen da. Saiatu behar dugu bestelako gizartea eraikitzen, non pertsona guztiek askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoz garatzeko, eta non giza eskubideei begira berdintasunezko eta begirunezko tratua jasoko duten.

Gure xedea da pertsona guztiekiko tratua onak bermatuko dituen gizarte baten bizitzea, urrats bat gehiago emango duen gizartea eta, emakumeenganako indarkeriaren aurka agertzearekin batera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde argiro azalduko den gizartea. Gure aldarrikapena da pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarrituko dituen gizartea. Errespetatzea ez da bakarrik ez erasotzea; aitzitik, berorren esanahia ere da pertsona bakoitzak, berdintasunik ezak dakarren mugarik gabe, bere bizitza-ibilbidea irudikatu ahal izateko bermea edukitzea.

Erakundeetatik geure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu, tratua onak sustatuko dituen gizartea eraikitzeke orduan, eta horretarako gure aurreiritziak, rola eta eguneroko jarduerak gure baitatik berrikusten hasi.



Usurbilgo Udala



Horregatik guztiagatik:

- Konpromisoa hartzen dugu gure eskuduntzen esparruan politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratu onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.
- Eta herritarrak gonbidatzen ditugu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak har ditzaten, urteko egun guztietan, baita azaroaren 25a dela eta burutuko diren ekitaldietan parte har dezaten ere, bai halaber gazteen arteko prebentzio eta hezkuntzarako “Beldur Barik” ekimenean.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapiain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

7.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: PARISKO ATENTATUEN AURREAN.

Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek gai-zerrendan sartzea berretsi dute aho batez.

Alkateak testuaren azken hiru puntuak irakurri ditu.

Fermin Orue-Echevarriak hitza hartu du eta esan du bigarren puntuak zer esan nahi duen ez duela gehiegi ulertzen. Segun eta noren eskuetara iristen den testu hau puntu honek arazoak sor ditzakeela uste du, Espainiak Nazioarteko harremanetan izan ditzakeen ondorioetan hain justu ere. Hori dela eta, puntu honetan abstenitu egingo dela adierazi du.

Alkateak adierazi du agian testua orokorra dela, izan ere gai honek hainbeste hari mutur eta hainbeste ertz ditu zaila dela konprezio maila handietara jotzea. Honekin adierazi nahi dutena da Parisko atentatu hauek gertatu direla bai, baina denek dakitela era berean atentatuak gertatu direla munduko beste paraje askotan, eta Europak askotan joera duela bertan gertatzen diren atentatuei sekulako garrantzia emateko baina beste nonbait gertatzen direnei ez zaie horrenbesteko garrantzirik ematen. Bestalde, horren aurrean hartzen den jarrera izaten da neurri batean espiral batean



Usurbilgo Udala



sartzea, hau da, zuek guri hau egin diguzue, ordainetan guk zuei botika berarekin erantzungo dizuegu. Nahiko luketena da orain European eta zenbaiten eskutik indartzen ari diren neurri errepresibo eta giza eskubideen zapalketaren bidetik jotzea baino bestelako politika batzuk garatzea.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du egokiena aurretik akordioetara iristea eta testu bateratu bat aurkeztea izango litzatekeela. Hori ez dela horrela izan eta mozioa puntuz puntu bozkatzea eskatu du.

Mozioa puntuz puntu bozkatua izan da.

Bozketa:

1. puntua aho batez onartua izan da.
2. puntua gehiengoz onartua izan da, Fermin Orue-Echevarriaren abstentzioarekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin.
3. puntua aho batez onartua izan da.

Bozketa kontutan hartuta, honela dio onartua izan den mozioak:

“Parisen azaroak 13ko gauean, 129 pertsonen heriotza eta 360 zauritu utzi zituen erasoak burutu ziren. Beste behin ere, herritar errugabeen heriotzak eragin dituen gertaera latzgarri baten aurrean gaude. Erabat salagarria eta arbuigarria den gertaera hain zuzen ere. Giza eskubideen urraketa larri honen aurrean, gertaerak sortzen duen egoneza eta larritasunaren ginetik sakoneko hausnarketak egitea funtsezkoa da.

Parisen eta Europa guztian gaur gaurkoz bizi den sufrimendua ez da mundu osoan bizi diren gatazketan bizi denarekiko ezberdina. Eguna joan eta eguna etorri, iragan ostiralean Parisen gertatua bezala, mundu guztian hainbat dira herritar errugabeen bizitzaren aurkako erasoak. Hainbat dira jatorri desberdinetako gerra eta gatazkak, sistematikoki giza eskubideak urratzen direnak.

Egoera guzti hauen aurrean oinarrizko irizpide batzuk argi izan eta norabide horretan urratsak ematea funtsezkoa da: Inork ez dezala indarkeria erabili errugabeen aurka, inork ez ditzala armak saldu bere etekinak handitzeko, eta inoren Nazioarteko politikak ez ditzala gatazka gehiago eragin. Herri eta pertsona guztien askatasunak baino ez du lortuko mundu osoan ditugun gatazka lazgarri guztiak gainditzea. Demokrazian sakontzea funtsezkoa da segurtasun gehiago izan dezagun. Eta ez segurtasunaren izenean demokrazia eta askatasunari mugak jarri.



Usurbilgo Udala



Gertaeraren larritasuna kontutan hartuta ere, Parisen gertatutako erasoaren erantzuna giza eskubideetan eta oinarrizko irizpide demokratikoetan oinarritu behar dela aldarrikatzen dugu. Populazio zibilak modu bidegabea pairatu duen eraso ankerraren erantzuna ezin da inola izan neurri eta izaera berekoa. Eskubideen murrizketan oinarritutako salbuespen legeek demokrazia ahultzen dute eta ez dute inoren segurtasuna bermatzen.

Giza eskubideetan eta demokrazian oinarritutako gizarte ereduak sakontzea funtsezkoa da eta horren alde lan egin eta egunero borrokatzea funtsezkoa da, bai Euskal Herrian eta mundu zabalean ere. Ondorioz, mundu osoan gertatutako giza eskubideen eta oinarrizko printzipio demokratikoen aurkako eraso guztiak dira salatu beharrekoak.

Guzti honen aurrean, Usurbilgo udalak honako ebazpen hau eztabaidatu eta onartzen du:

- 1.- Udal honek, Pariseko erasoak irmoki salatu eta arbuiatzen ditu eta bere samina adierazi nahi die hilik edo zauriturik izan diren herritarrei eta haien familiei. Horrez gain gure babes eta elkartasun osoa adierazi nahi diegu Frantziako estatuko herritarrei une larri hauetan.
- 2.- Udal honek, giza eskubideen eta oinarriko irizpide demokratikoen aurkako eraso guztiak salatzen ditu. Ondorioz, eskubideen murrizketa eta salbuespen legeetan oinarritutako erabakiek arazo konponbidea baino gatazken areagotzea besterik ez dutela sortzen adierazten du.
- 3.- Erabaki honen berri, herritarrei helaraztea erabakitzen du udal honek."

8.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: SAHARAR ERREFUXIATU GUNEETARA LARRIALDI LAGUNTZA ETA ELKARTASUNA.

Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek gai-zerrendan sartzea berretsi dute aho batez.

Alkateak adierazi du testu honek adierazpen bat jasotzen duela baina baita laguntza ekonomiko bat bideratzeko proposamena ere.

Jarraian, adierazpenaren azken hiru puntuak irakurri ditu.

Fermin Orue-Echevarriak hitza hartu du eta hirugarren puntuari dagokionez adierazi du Eusko Legebiltzarrak martxoaren 12an adierazpen instituzional bat onartu zuela udal honetan dauden hiru alderdien aldeko bozkarekin. Hori horrela izanik, hirugarren puntu honen orde, Eusko Legebiltzarrak onartutako adierazpeneko lehenengo puntuko bigarren azpi-puntua sartzea egokiagoa iruditzen zaiola esan du.



Usurbilgo Udala



Honela dio hirugarren puntuaren ordeztatu beharrekoak:

“Defenda dezala Nazio Batuek deskolonizazioari eta lurralde ez-autonomoei buruz finkatua duen doktrina. Halako lurraldeei dagokienez, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 2625 Ebazpenak adierazten du: “Estatu subirano eta independente bat ezartzea, estatu independente batekin askatasunez elkartzea edo hartan integratzea, edo herri batek libreki erabakita bestelako izaera politiko bat bereganatzeko izango dira herri baten determinazio askerako eskubidea gauzatzeko bideak”. Hori da, hain zuzen ere, autodeterminazioaren edukia.”

Eusko Legebiltzarrak onartutako adierazpena banatu die gainontzeko batzarkideei.

Alaitz Aizpuruak, aurreko puntuan Fermin Orue-Echevarriak aipatu duen adierazpenak adostarekin lotuta, esan du badakiela askotan ez direla iristen, azken momentuan ibiltzen direla, baina zehazki Saharako mozioa hilabete erdian bidali zitzaizela emalez adostasuna bilatze aldera, tartean aportazio ekonomiko bat ere bazegoelako, eta erregistratu aurretik ez dutela ekarpenik jaso azpimarratu du.

Fermin Orue-Echevarriak erantzun dio bai jaso zuela.

Jatorrizko adierazpenaren hirugarren puntuaren ordeztatu Eusko Legebiltzarrak onartutako adierazpeneko lehengo puntuaren bigarren azpi-puntua txertatzea erabaki da.

Batzarkideek, honako erabakia hartu dute aho batez:

“Saharar errefuxiatu guneetara larrialdi laguntza eta elkartasuna.

Espainiako gobernuak Saharako lurralde Marokori emateko sinatutako hitzarmenaren 40. urteurrena izango dugu azaroaren 14an. Orduetik, 180.000 pertsona bizi dira Argeliako Tindouf hiritik gertu Frente Polisarioak antolatutako errefuxiatu kanpamenduetan.

Egun, inoiz baino argiago dago Sahararen gaia Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluaren agendan sartzeko inolako borondaterik ez dagoela. Nahiz eta egun, erakunde honen presidentzian Espainia egon. Madrilgo autoritateek ez dute bere lagun eta aliatu marrokiarra tratatu nahi.

Estatuko alderdi nagusienak saharar herria traizionatu zuten gertakari historikoen aurrean erantzuteari uko egin diote. Eta gainera ez dute nazioarteko legalitatearen betetzeko helburuarekin nazioarteko instantzien aurrean lan egiteko asmorik.

Zorionez, badira desertu honetan bestelako aldarrikapen ahotsik. Batasun Afrikarrak Mozambikeko presidente ohia eta Frelinoren liderra, Joaquin Chisano Sahararekiko ordezkari berezi izendatu dute.



Usurbilgo Udala



Bestalde, Hegoafrikako Presidenteak, Jacob Zuma-k, Nazio Batuetara joan aurretik Sahararen autodeterminaziorako erreferendumaren eguna jartzeko ordua badela adierazi zuen. Eta Segurtasun Kontseilua Giza Eskubideen bortxaketa eta lurralde okupatueta baliabide naturalen legezkantza uztiaipenen inguruan ohartarazi zuen.

Era berean, Deskolonizazio Komiteak beste behin MINURSOren inplementazioa eta Sahara deskolonizaziora eramango duen erreferenduma aldarrikatu zituen.

Guzti hori gutxi balitz, urriaren 17 hasita, eurite izugarriak izan dituzte errefuxiatuen kanpamentuetan. 40 urte hauetan lortutako guztia galdu dute. Kalteak batez ere lehenik ahulak ziren eraikuntzetan eta haimetan izan dira. Familia askok zuten guztia, gordetako elikadurak barne, galdu dituzte. Giza galerarik izan ez bada ere, kalte materialak biztanleri osoak jasan behar izan du.

Egoera honen aurrean, Usurbilgo Udalak euskal gizarteari eremu guztietan Sahararekiko elkartasuna areagotzearen beharra adierazi nahi die:

- Kooperazio eta elkartasun materialaren indartzea; batez ere errefuxiatu kanpamentuetan egunotan jasan dituzten uholdeen ostean. Elkartasuna areagotzeko deia egiten dugu eta hondamendi natural honek, oraindik ere errefuxiatu kanpamentuetako bizitza gogortu dutenak, sortutako beharrei premiazko erantzuna eramatera.
- Usurbilgo Udalak 1.500€ko laguntza ekonomikoa bideratuko du, Gipuzkoako Saharar herriaren lagunen elkartearen bidez izandako kalteetan laguntzeko.
- Defenda dezala Nazio Batuek deskolonizazioari eta lurralde ez-autonomoei buruz finkatua duen doktrina. Halako lurraldeei dagokienez, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 2625 Ebazpenak adierazten du: "Estatu subirano eta independente bat ezartzea, estatu independente batekin askatasunez elkartzea edo hartan integratzea, edo herri batek libreki erabakita bestelako izaera politiko bat bereganatzea izango dira herri baten determinazio askerako eskubidea gauzatzeko bideak". Hori da, hain zuzen ere, autodeterminazioaren edukia.

Inbaditu, kolonizatu eta ondoren okupatzaile berri baten eskuetan utzi zuen estatuarengandik ezer gutxi espero dezake saharar herriak. Bere borroka heroikoan, gaur eta beti, gure estimazio eta elkartasun osoa izango dute."

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala



Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

9.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: EUSKARAREN EGUNA.

Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek gai-zerrendan sartzea berretsi dute aho batez.

Alkateak adierazi du UEMAtik datorren adierazpena dela eta jarraian adierazpenaren azken puntuak irakurri ditu.

Batzarkideek honako adierazpena onartu dute aho batez:

“Adierazpen instituzionala, Euskararen Eguna

2015eko abenduak 3an, Euskararen Egunaren harira, Usurbilgo Udalak honakoa nabarmendu nahi du, udalerrri euskalduna eta euskararen arnagunea den heinean.

Euskara gure herriaren oinarritzko orubea da, gure hizkuntza denez, munduari begiratzeko daukagun leihoa eta mundura zabaltzeko daukagun atea baita. Euskaraz gara, eta euskaratik egiten dugu bidea, eguneroko lanean eta bizitzan.

Mendeetan zehar belaunaldiz belaunaldi gure ahorraino heldu den hizkuntzak ez du ibilbide samurra izan, eta gaur egun ere, oraindik, artaziak hurbil sumatzen dituzte euskaldun askok beraien herrietan, ofizialtasunik gabe eta euskaraz aritzeko inolako erraztasunik gabe.

Udalerrri euskaldunetan bestelakoa da egoera. Legez ofiziala da euskara, euskaraz modu naturalean aritzen gara, oraindik ere nahi baino esparru gehiagotan zailtasunak ditugun arren. Horri aurre egiteko lanean segitzea dagokigu, zenbaitek larrekia nahi duten hizkuntza noranahikoa izan dadin benetan.

Euskara lau haizetara zabaltzeko ahalegin horretan, aintzat hartzekoa eta aitortzekoa da hiztunek, euskaldun berriek eta herri eragileek zein erakundeek egindako lana. Horien guztien euskaraz bizitzeko nahiak ekarri baikaitu honaino. Aurten, bereziki, eta hainbat erakunde publikok horrela adostuta, berariaz aitortu eta nabarmendu nahi dugu euskaldun berrien ekarpena eta ahalegina.

Gaur, beraz, 2015eko Euskararen Egunean, Usurbilgo Udalak honakoa **adierazten du:**



Usurbilgo Udala



- Udalerri euskaldunak dira euskararen arnaguneak, hizkuntzaren transmisioan eta balio erreferentzian duten garrantziagatik. Euskararen gune hegemonikoak dira, eta baita eredu ere hain euskaldunak ez diren eremuentzat.

- Udalerri euskaldunek izaera horri eutsi baldin badiote, eragile askoren ahaleginari esker eta hiztunen hautuari esker izan da. Aurten, bereziki, euskaldun berrien ekarpena aitortu eta eskertu nahi dugu, euskara ikastearekin, udalerri euskaldunek gure hizkuntzari eusteko dagokien alea jarri dutelako.

- Udalerri euskaldunetako bilakaera soziolinguistikoak, hala ere, azken urteotan ezagutzak behera egin duela erakusten du, eta datu horiek kezka ikusten ditugu. Arnaguneak zaindu eta hedatu ezean, beheranzko joera areagotu egingo baita, euskararen normalizazio prozesua arriskuan jarritz.

- Horregatik, euskaldun berriei aitortza hau egiteaz gain, euskaldun berriak sortzen jarraitzeko eta horretarako bitartekoak jartzeko eta erraztasunak emateko konpromisoa hartzen dugu. Baita udalerriaren erabateko euskalduntzean dugun ardura eta egiten dugun ekarpena aztertzea ere, horren inguruko hausnarketa eginez, ditugun baliabideen eta eskumenen baitan.

- Udalerri euskalduna den heinean, Usurbilgo Udalak, honen bidez, euskaraz bizitzen segitzeko borondatea berretsi nahi du, harrotasunez, herri honen kulturari eta izaerari egin diezaiokeen ekarpen ederrenetakoa dela iritzita. Era berean, aitortu eta eskertu egin nahi du, egunero euskarari hauspoa ematen dioten herritar guztien hautua eta ekarpena eta, aurten, bereziki, euskaldun berriena.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

10.- GALDERA-ESKAERAK.

Fermin Orue-Echevarriak 2016ko aurrekontuak prestatzen hasi diren galdetu du.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio horretan ari direla eta aste honetan bertan abenduaren 2rako Ogasuneko ezohiko batzordea deitzeko asmoa dutela. Batzorde horretan aurrekontuak aurkeztuko direla esan du, ondoren ekarpenak egiteko tarte bat utziko dela eta abenduan bertan bigarren batzorde bat egingo dela. Helburua aurrekontuak abenduko plenoan onartzea dela gaineratu du.

Alkateak gaineratu du aurrekontuak aztertzeko eta ekarpenak egiteko bi aste izatea aurreikusten dutela.



Usurbilgo Udala



Amaitzeko, alkateak jakinarazi die batzarkideei Foru Aldunditik deialdi bat jaso dutela bizikidetza lantzeko, jardunaldia azaroaren 26an goizez izango dela zehaztu du. Foru Aldunditik deialdiaren berri zinegotzi guztiei emateko eskatu zaiela eta, beraz, gonbita luzatuta geratzen dela esan du.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:45ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.